

**Fundación Goyeneche
Legazpiko Garaguneko
erabiltzaileak Illinti
elkartarekin elkar-lanean**



Bertako bazkideei azaldu genien bezala antolatu genituen topaketetan, guretzat oso garrantzitsua da herrian parte hartzea, herritar sentitu, harreman sarea zabaldu eta laguntza jaso ez ezik, aportazioak egiteko gai ere bagarela erakusteko, Hau burutu ahal izateko, ezinbestekoa dugu Legazpiko herritar, elkarte, zerbitzu, eta entitateek aukerak ematea, eta oraingo honetan Illinti izan da aukera hori eman diguna. Hartu eman honetan, elkar ezagutze honetan, begiradak aldatu nahi genituzke, eta auzolanean bezala, guztion artean eraiki guztioentzat ona izango dena: elkarbizitza.

Lehen kolaborazio honetan, Illinti elkartean dauden dendatan poltsa batzuk banatu ditugu material desberdinarekin. Garagunera materiala ekarri digute eta guk poltsak prestatu ditugu. Ondoren, dendan zerrenda esku artean genuela, kalera atera gara banaketa egitera.

Lerro hauek aprobetxatu nahi genituzke eskerrak emateko Illinti elkarteari, eta hain harrera ona egin diguten dendariei.